



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-04-11

BILERA ZENBAKIA:48

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Erkuden, Leire, Ruth, Jabi, Mainer, Kike, Itziar.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPEN.

2. EGUTEGIRAKO ARGAZKIAK

3. TOPAGUNEA.

4. GURASO TALDEAN ETA ESKOLAN AURRERA ERAMATEKO EKINTZAK.

5. BESTEAK.

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

Akta onartu da.

1. EGUTEGIRAKO ARGAZKIAK.

Kike etorri da, eta, egutegirako dagoen ideia eta dudak azaldu zaizkio. Honakoa hitz egin da:

- **Egutegiaren xedea:** Herriko errealitatea egutegian islatzea, 12 hilabete, 12 eremu kontutan hartuta. Ez da helburua, rolak hankaz gora jarriko dituen irudiak bilatzea, eta, eztabaida sortzea, baizik eremu ezberdinetan ematen den errealitatea islatzea, eta, errealitate horren baitan hausnarketa egitea. Ikusten bada esparru batean emakume gutxi dagoela edo beste esparru bat emakumearen gain geratzen dela, horren inguruan hausnartu beharko da eta lanketarako eremu gisa hartu. Egutegiaren eraketa, prozesua erreminta ona izan daiteke herrian eta jendartean dagoen errealitatea jaso eta hausnarketarako.
- **Argazkietan landuko diren gaiak:** Aurreko saioan gai ezberdinak eta gai



bakoitza zein eszenatan irudika zitekeen landu genuen. Duda genuen ea egokiak ziren berdintasun ikuspegitik eta aholkularitza eskatzeko aukera mahai gaineratu genuen. Mainerrek aholkularitza eskatu zuen, eta, horretarako ordaindu beharra zegoela esan zioten, beraz guk gure ideiarekin aurrera jarraitzekotan geratu ginen.

- **Argazkien forma:** Planoak gertukoak, urrunekoak eta pertsonen aurpegiak ateratzea edo ez ateratzearen duda sortu zen aurreko lantaldean. Argazkiaren eta gaiaren arabera plano ezberdinak atera ahal direla esan du Kikek.
- **Baimenak:** Kontutan hartu beharrekoa, aurpegia ateratzen den kasuetan baimena eskatzea aldeztu aurretik.
- **Argazkiak ateratzea:** Argazkiak ateratzeko egutegi bat egin beharko da. Behin eszenak nahiz protagonistak zehaztuta. Argazkilariak prestutasuna adierazi du horretarako, eta, talde naturalak biltzen diren kasuan (adb. eskola eta jubilatuek) saio hori baliatzea lehenetsi du, saioz kanpo egin eta jendea mugitu beharrik izan gabe. Ahal izanez gero argazki guztiak 3 egunez egiten saiatuko da, baina beharren arabera luza daitekeela aurreikusten da.

2. TOPAGUNEA

Topagunearen planteamendua:

- **Data:** Ekainaren 30a.
- **Aurrekontua:** 500 euro dago hitzaldietarako. Berdintasuneko aurrekontutik ere kopuru bat erabil daiteke.
- **Kokalekua:** Goiza Udaletxean. Bazkaria eta arratsaldea Gaztelekua eta frontoia dagoen gunea.
- **Norentzat:** Herriko jendearentzat. Beste herrietako gizon eta emakume taldeak gonbidatu (topaketa aberasteko).

Egitaraua:

Goiza	<ul style="list-style-type: none"> • Gogoetara bideratutako ekintzak aurrera eramango dira. • Udaletxeko gelak erabiliko dira. • Gizon eta emakumeek, aparte, bakoitza bere dinamizatzailearekin lanketa bat egingo dute. (1ord. 30 min) • Gizon taldearen dinamizatzailea lotuta dago. (Aitzol 60€ ordua) • Emakume taldearen dinamizatzailea lotzear. Dinamizatzaile posibleak: Sexune edo Amelia Barkin. Emakume taldea dago Itsasondoko eta egokia litzake bertan aipatzea zein gai jorratu nahi diren egun horretan eta horren baitan bideratzea saioa. • Guztiok elkartu eta hausnarketarekin jarraitu (1ord 30min). Aurreko saioan egindako hausnarketak ez partekatzea ikusten da. Gizonek hausnarketarako izango duten tarte garrantzitsua dela baloratzen da, eta konpartitu beharrik sakontzea oztopa dezake. Emakumeek taldea dute eratuta eta lanketa bat egiten ari dira, garrantzitsua da gizonek ere
-------	---



	<p>beraien espazioa garatu eta maskulinitate eredia lantzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Saio hau dinamizatzeko bi ideia aipatu dira: Esaldien dinamika. Egunerokoan gertatzen diren mikro matxismo egoerak islatzeko balio dezake. Beste herrietako emakume eta gizon taldeak gonbidatzea beraien esperientziak eta lan ildoak azal ditzaten. • 10:00-13:00 zaintza zerbitzua egongo da. Zaintza eramaten duten pertsonekin hitz egingo da eta honez gain Irriz-Blai-ekoekin ere. Ea jolas kooperatiboak egin ditzakeen. Hamaiketako egingo da.
Eguerdian	<ul style="list-style-type: none"> • Batukada eta poteoa.
Bazkaria	<ul style="list-style-type: none"> • Paella handi bat egitea planteatu da, merkeagoa eta errazagoa baita. (Ikerrekin hitz egin) Aurreko egunean saltsan zerbait egin eta egunean bertan berotzea ere planteatu da. • Edaria Udalari eskatu ahal zaio. • Guztia zenbat atera daitekeen kalkulatu eta horren arabera izango da bonoaren prezioa. • Edalontzi eta platerak Udalekoak erabiltzea aipatu da, baina lana suposatzen du garbitzeak eta horretaz norbait arduratu beharko dela aipatu da. • Bonoak egongo dira Gizarte Zerbitzuetan bazkaria ordaindu ezin dutenentzat.
Arratsaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Mikrometrajeen proiektzioa. 3 astez herritarrek mikrometrajeak egin eta ongizate lantaldere bidaltzea planteatzen da (telefono bat lotu). Bazkalondoren hauen proiektzioa burutuko da. • Ekainaren 10erako egon beharko dira mikrometrajeak. 3 astez egongo da zabalik bideoak bidaltzeko epea. • Kontzertu dinamizatu baten ideia mahai gaineratu da. 3 musikari eta dinamizatzaile batek osatzen dute, eta, aurrekontua 600 eurokoa da. Musika ekipoa ere beharko litzake. Dinamika hau egoki ikusten da, familian nahiz bakarka gozatzeko aukera ematen baitu, eta, dantzaren bidez elkarerraginean ibiltzea ahalbideratzen du. Garesti dela ikusirik bestelako aukerak ere mahai gaineratu dira (jolas kooperatiboak, jolas erraldoiak, altxorraren bila, etab) ez da ezer lotu.

Kontutan hartzekoak:

- **Zaintza zerbitzua:** Zaintza egin ohi duten pertsonekin hitz egin. Irriz Blai-ekoekin hitz egin ea jolas kooperatiboak egin ditzaketen. Hamaiketako egin.
- **Emakumeentzat dinamizazioa:** Emakume taldean aipatu joratu beharreko gaiak, diren gaiaren arabera dinamizatu.
- **Udaleko gelak prestatu** goizeko saioetarako.
- **Guztiok elkartzen diren momentuko dinamizazioa lotu.** (esaldiak, gizon, emakume taldeak)
- **Bazkariko menua:** Paella edo saltsan zerbait egin behar den erabaki eta



arduradunekin hitz egin.

- **Bazkarirako izen ematea nola izango den erabaki.** Listak edo bonoak. Apuntatzeko data. (ekainak 4ean jartzea planteatzen da)
- **Mahaia jarri eta jasotzearena lotu.** Auzo lanean egin.
- **Edalontzi eta platerekin zer egin erabaki.** Zeintzuk erabili.
- **Mikrometrajeen deialdia: kartela egin, baldintzak finkatu.** Telefonoa lotu. Albertorekin Hitz eginda dago muntaiarena.
- **Arratsalderako ekintza lotu.** Kontzertu dinamizatua, jolasak, esne beltzako dj-a...)

Besteak:

- Topagunearen planteamendua Legorretarekin batera egitea planteatu da, aberasgarriagoa izango litzakeelako. Denbora gutxi geratzen denez, herri mailako zerbait egitea erabaki da.
- Erradikalak gara antzerki emanaldia bazkal ondorengorako planteatu da, ez da onartu estatikoa delako. Ala ere urtean zehar ekartzeko interesgarria dela erabaki da.

3. GURASO ESKOLAN AURRERA ERAMATEKO EKINTZAK.

Eskolakoek aukeratu dituzte nahi dituzten ekintzak. Mainerrek Sexunera deitu du horien inguruan hitz egiteko eta aipatu diote ekintza berri batzuk daudela, eta hauen aurrekontua luzatu diote.

Eskolak jada hautatuak dituzenez aurreko eskaintzako bi programa, hauen aurrekontua lortu, Udalak gastua beregain har dezakeen ikusi eta eskolari erantzun bat ematea ikusi da bide egokiena.

Guraso taldekoek ez dute proposamen zehatzik luzatu, baina sexualitatea landu nahi zuten eta eskolak hautatutako programa batek sexualitatea lantzen du haurrekin eta helduekin, beraz, behin aurrekontua ikusita eta dauden aukerak argi izanda, eskolak proposatutako tailerrak ondo ote datozkion galdetu ahal diogu guraso taldeari. .

4. BESTEAK.

Desfribiladorea: Udalean desfribiladore bat dago eta honen erabilera ezagutzeko ikastaroak egitea beharrezko ikusten da. Aurrez eginak daude formazio saioak baina berriz egitea eta pertsona klabeak joatea animatzea planteatzen da. Dendariak, tabernariak eta Udal langileak besteak beste.

Pentsatu beharko da nola eta noiz egin formazioa, eta, nola aipatu tabernari, dendari eta udal langileei, baita bestelako herritarrei ere.

Errefuxiatuak: Hotz Legazpik, haur errefuxiatuek eginiko tazen kanpaina bat jarri du abian. Tazak 10 eurotan daude salgai eta jasotako dirua errefuxiatuekin lanean



dabiltzan elkarteei laguntzeko izango da. Ruth beraiekin jarri da harremanetan eta taza batzuk eskuratzea posible da.

Zenbat taza behar diren ikusteko aurrez watsap bidez norbaitek interesa ba ote duen galdetzea eta eskatzen direnak + 10 taza ekartzea aipatu da, edota gutxi gora behera kalkulatzuz 20 taza ekartzea.

Janari banaketa: Janari banaketaren balorazioa azaldu da lantaldean, beharra duten familiak badaudela ikusi da, eta, eredu egokiena ez dela baloratu den arren, martxan dagoen baliabide bat izanik, Udalarari koste minimoa suposatzen diona eta erabiltzaileei behar bati aurre egiten laguntzen diena, honekin aurrera jarraitzea baloratu da.

Banaketa bolondresak egingo dute hemendik aurrera. Lau pertsona lotzea eta bi taldetan banatzea planteatzen da. Banaketa ez da hortaz Udalaren esku geratzen, bai ordea: erabiltzaileen jarraipena, erabiltzaile berrien txertatzea, banatzaileekin harremana, bolondresen koordinazioa. Egiteko hauek gizarte zerbitzuen esku geratuko dira.

Frontoian obrak egin behar direnez, elikagai bankuko material guztia gelatxotik atera beharra dago.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Guraso eskolan jarduerak	2018-05-09	Maider - Itziar
Topagunearen ideia garatzen jarraitu	2018-05-09	Maider - Jabi.
Mikrometrajeen kartela egin	2018-05-09	Erkuden

HURRENGO BILERA

2018ko maiatzaren 9an egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

1. Topagunea.
2. Eskola eta guraso taldearen jarduerak.
3. Argazki saioa.
4. Elikagai bankua eta bolondresak.
5. Besteak.